

UDALAK 2011ko ABENDUAREN 27AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BATZORDEKIDEAK:

ALKATEA:

Luis Intxauspe Arozamena jn.

ALKATEORDEAK:

Gloria Mendinueta Yeregi and.

Asier San Emeterio Otegui jn.

ZINEGOTZIAK:

Idurre Conde Santa Cruz and.

Miren Kistiñe Lujanbio Galdeano and.

Aitor Miner Aginaga jn.

Iker Goenaga Gubia jn.

Beñat Amenabar Perurena jn.

Nahiara Sanchiz Arregui and.

Estefanía Morcillo Cerdan and.

Jose Ramón Chica Ramirez jn.

Joser Pérez Dominguez jn.

Andoni Amonarraiz Gómez jn.

Iñaki Arratibel Olaziregi jn.

Iñaki Barrio Sagastume jn.

2011ko abenduaren 27an ohiko osoko bilera egin da Hernaniko Udaletxean, arratsaldeko 19:00etan, aurrez deialdia egin zegoelarik. Bilera Luis Intxauspe Arozamena alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako batzordekideak eta neu, Arantxa Urain Mendiburu idazkaria.

KONTU HARTZAILEA:

Antxon Garcia Nadal jn.

IDAZKARIA:

Arantxa Urain Mendiburu and.

1.- AKTA ONARTZEA: 2011-10-20, 2011-10-26 ETA 2011-11-29. – Alkate-lehendakariak azaldu du, Morcillo andreak eskatuta, koordinazio arazo bat tarteko 2011ko urriaren 26ko osoko bilkurako akta ez dela puntu guztiak itzulita zituela bidali eta, beraz, hurrengo bilkuran onartzeko utzi da.

2011ko azaroaren 29an egindako bilerako akta aho batez onartu da.

2.- 2011KO AZAROAREN 25ETIK 2011KO ABENDUAREN 21ERA BITARTE HARTUTAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA. - 2011ko azaroaren 25etik 2011ko abenduaren 21era bitartean pertsona bakarreko honako organo hauek hartu dituzten ebazpenen berri eman da.

* Alkate jn.

* Zerbitzu Publikoetako delegatu jn.

- * Kiroletako delegatu jn.
- * Hezkuntza eta Enpleguko delegatu and.
- * Politika Sozialeko delegatu jn.

3.- HERNANIKO UDALAREN AURREKONTUAREN 17/2011 ZENBAKIKO KREDITU ALDAKETAKO ESPEDIENTEAREN BERRI EMATEA (KREDITUEN TRANSFERENTZIA BIDEZKOA). Alkatetzak 2011ko abenduaren 20an emandako ebazpenaren berri eman da. Ebazpen horren bidez **17/2011** zenbakiko kreditu aldaketako espedientea onartu zen, Hernaniko Udalaren 2011ko aurrekontuaren partiden arteko transferentzia bidezkoa. Kopurua: **65.253** euro.

4.- ALKATETZAK 2011KO ABENDUAREN 2AN EMANDAKO EBAZPENA BERRESTEA. EBAZPEN HORI UDAL BIDEEN INBENTARIOAREN ONARPEN ERABAKIAREN KONTRA JARRITAKO 13/2011 ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOARI BURUZKOA DA.

Alkatetzak honako ebazpen hau eman zuen.

“DEKRETUA.- Hernanin bi mila eta hamaikako abenduaren bian.

Construcciones y Rehabilitaciones Tecnolur, S.L.k eta Jose Francisco Gude Garciak, (IZO 20.05.3-11/000035) Arrunta 13/2011 administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri dute Donostiako Administrazioarekiko Auzien 1 zenbakiko Epaitegian. Errekurtsu hori Hernaniko Udalak osoko bilkuran 2007-04-3an hartutako erabakiaren aurkakoa da, zeinen bidez herri bideen inbentarioa behin betiko onartu zen.

2011ko otsailaren 8ko ebazpenaren bidez, Oscar Padura Unanue letratu jauna izendatu zen errekurtsu horretan Udalaren interesak ordezkatu eta defendatzeko.

Horiek horrela, eman zaidan ahalmena erabiliz, honako hau:

ERABAKI DUT:

1.- Mercedes Zulaika Galdos letratu andrea izendatzea Oscar Padura Unanue jaunaren orde, errekurtsu horretan Hernaniko Udalaren interesak ordezkatu eta defendatzeko, horretarako prokuradoreen alde emanda dagoen ahalmen oro erabiliz.

2.- Ebazpen hau hurrengo Osoko Bilkuran berrestea.”

Ebazpena berrestea erabaki da (Euskal Sozialistak eta EAJ-PNV abstenitu egin dira.

5.- 10.5 EREMUKO (TXANTXILLA) URBANIZAZIOAREN 1. FASEKO ZATI BAT JASOTZEKO ESKAERA UTE TXANTXILLAK AURKEZTUA. - Aztertu da UTE TXANTXILLA enpresak egindako eskaera 5. eremuko (Txantxilla) urbanizazioaren 1. faseko zati bat udalak jasotzeko.

Aztertu dira udal aparejadoreak eta Ur eta Argi zerbitzuburuak egindako txostenak.

Aztertu da Hirigintza eta Ingurumen Batzordeak 2011ko azaroaren 18an emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

- 1.- 5. eremuko (Txantxilla) urbanizazioaren 1. faseko zati bat hartzea.
- 2.- Luis Intxauspe Arozamena alkate jaunari edo haren legezko ordezkari akordio hau formalizatzeko beharrezko diren dokumentu publiko nahiz pribatu guztiak sinatzeko ahalmena ematea.

6.- EREÑOTZUKO ZENTRAL HIDROELEKTRIKOARI BURUZKO LANKIDETZA HITZARMENA, CH DE RENTERIA S.A. SOZIETATE PUBLIKOAREKIN (EEE ETA ERRETERIAKO UDALA). Aztertu da Hirigintza eta Ingurumen batzordeak 2011ko abenduaren 12an emandako irizpena.

Morcillo andreak (Euskal Sozialistak) esan du proiektua interesgarria iruditzen bazaien ere, gaur egungo egoera ekonomikoa kontuan hartuta eta egitasmoa gauzatzeak udalari ekarriko dion kostua ikusita, kontrako botoa emango dutela.

Amonarraiz jaunak esan du (EAJ-PNV) batzordean aldeko botoa eman bazuten ere kontrako botoa emango dutela orain, proposamena sakon aztertu dutelako eta, egoera ekonomikoa kontuan hartuta, beren ustez badaudelako beste legegintzaldi batzuetako egitasmoak oraindik egin gabe daudenak eta egin litezkeenak.

Arratibel jaunak esan du (H1!), arrazoi horiez gain, hitzarmenean jasotzen dela udalak jabeen dagozkien hainbat gastu hartuko dituela bere gain eta hori, beren ustez, onartezina dela eta, beraz, kontrako botoa emango dutela.

Alkate jaunak esan du (Bildu) hitzarmenean jasota dagoena dela 7 urtean ezer egiten ez bada itzuli egingo dela. Bere garaian baloratu zutela hitzarmena onartzeak ez duela derrigor esan nahi zerbait egin beharra dagoela, egoera ekonomikoak lehenetsunak jartzen joango baita.

Amonarraiz jaunak esan du hitzarmena sinatzerakoan hainbat gastu konprometitzen direla eta, behar bada, Errenteriarik exijitzen ahal zitzaizkiola, eraikina oso hondatua baitago, eta 7 urtetan zerbait gertatuz gero erantzukizuna Hernanirena izango baita. Eta, horrez gain, esan du izenpetzen baldin bada zerbait egiteko izango dela, ez ea zerbait egiten den ikusteko eta 7 urteren buruan ezer ez egiteko, egin zitezkeen beste hainbat gauzaren kaltetan.

Alkate jaunak erantzun dio beraiek kontuan izan dutena izan dela zerbait egiteko aukera dagoela, eta azterlan sakon bat egin behar dela, eta aldeko botoa izango duela zer nolako posibilitateak dauden aztertzeke aukera ematen duelako.

Chica jaunak esan du (Euskal Sozialistak) hasieran behintzat ez dela ezer egingo, eta balitekeela hurrengo legegintzaldirako uztea, baina gobernu talde hau hitzarmenarekin ados baldin badago, urteko kostua kalkulatu daikalako izango dela. Ez da ulertzen esatea 7 urteren buruan zerbait egin daitekeela, logikoa da dena gelditzea eta hemendik 7 urtera, daudenak daudela, erabaki dezatela zer egin.

Alkate jaunak Hirigintza eta Ingurumen batzordeak 2011ko abenduaren 12an emandako irizpenaren bozketa egin du. Hona hemen emaitza:

- Aldeko botoak: 9 (Bildu)
- Kontrako botoak: 6 (3 Euskal Sozialistak, 1 EAJ/PNV, 2 H1!)
- Abstentzioak: bat ere ez.

Beraz, emandako botoak ikusita, erabaki hau hartu da:

“Ereñotzuko zentral hidroelektrikoa euskal industri ondarearen elementu oso esanguratsua da. Horregatik, eta kontuan hartuta gaur egungo eraikinean badirela XIX. mende bukaeran eraikitako fabrikari erabiltzen ziren makinaren pieza asko, egoera txarrean bada ere, udalak azterketa bat egin du eraikin horretan duela gutxi, hain zuzen ere garai bateko makina-gelan eta etxebizitzan jendearentzako irekia egongo den interpretazio zentro bat jartzeko asmoz.

“Central Hidroeléctrica de Rentería, S.A.” da Hernaniko udalerrian dagoen eta Ereñotzuko Zentrala izenez ezagutzen den higiezinaren jabea (Energiaren Euskal Erakundeak eta Errenteriako Udalak osatzen dute sozietatea).

Aipatutako proiektua gauzatzeko aldera behar den finka eskuratu nahian, hainbat elkarrizketa izan ditugu aipatutako entitatearekin eta, duela gutxi, CH Rentería S.A. sozietateak akordio proposamen bat bidali du. Akordio horren bidez Ereñotzuko Zentrala izenez ezagutzen den eraikinaren aldi baterako lagapena egingo dio Hernaniko Udalari (etxebizitza eta makinaren eraikina), hainbat baldintzapean.

Aztertu da Hirigintza departamentuko letratuak egindako txostena.

Aztertu da Hirigintza eta Ingurumen Batzordeak 2011ko abenduaren 12an emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da:

- 1.- Garai bateko Ereñotzuko Zentral Hidroelektrikoaren eraikinaren aldi baterako lagapenaren kontratua onartzea.
- 2.- Luis Intxauspe Arozamena alkate jaunari edo haren legezko ordekoari akordio hau formalizatzeko beharrezkoak diren agiri publiko nahiz pribatuak sinatzeko ahalmena ematea.”

7.- EBPEN GARATZEKO ESKAERA HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILORDETZARI (HPS). - Aztertu da Euskara Batzordeak 2011ko abenduaren 13an emandako irizpena.

Euskal Sozialisten abstentzioarekin erabaki da.

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari igortzea Hernaniko Udalak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzeko Plan Estrategikoa bideratzeko interesa duela.

8.- CLECE SA-K 2011KO ABUZTUAREN 17KO ERABAKIAREN AURKA JARRITAKO BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA. ERABAKI HORI UDAL ERAIKINEN GARBIKETA ZERBITZUAREN ESLEIPENARI BURUZKOA DA. - Udal honetan tramitatu den, Udaleko hainbat eraikinaren garbiketa zerbitzuaren kontratazio espedientean, Osoko Bilkurak 2011ko abuztuaren 17an hartutako esleipen akordioaren aurka CLECE, SAK jarritako berraztertze helegitea ikusi da, non eskatzen duen esleipen akordioa baliogabetzat jotzea eta bere eskaintzaren aldeko esleipen akordioa hartzea. Era berean, akordioaren exekuzioaren etetea eskatu dela ikusirik.

Ikusita helegitearen berri eman ondoren COMERCIAL DE LIMPIEZA VILLAR, SA-k egindako alegazioak.

Bi hauei erantzunez Zerbitzuetako aparejadoreak 2011ko azaroaren 17an egindako txostenak agertzen du:

“Errekurtsoa CLECEk 2011eko irailaren 16an aurkeztu zuen eta bertan esleipen prozesuan hobekuntzen atalean eman diren puntuazioak ez direla zilegi argudiatu zuen, 4 arrazonamendu ildo jorratuz:

AENOR eta OHSAS ziurtagiriak:

Puntuaketak zeuden horretan uztea proposatuko nuke. VILLAR enpresaren 22. hobekuntzaren inguruan, uste dut hobe delako, baita segurtasun ikuspegitik ere, Eusko Jaurlaritzak ziurtaturiko produktuak gordetzeko ziurtagiria izatea ez izatea baino, bere garaian aurreko teknikariak puntuagarri iritzi zion eta baita nik ere, ez zuzenean zerbitzuari eragingo diolako baina bai ziurrenik zeharka eta halako berme juridiko bat ere ematen digu VILLAR.

CLECEri baloratu ez zaizkion hobekuntzak:

Arrazoi izango dute CLECEkoek beraien Reach and Wash sistema ez zaiela baloratu diotenean, EULENekoei baloratu zaiela ikusita. Ala ere VILLARrekoen eskaintzako dokumentazio teknikoak aztertuta ondoren eta beraiek ere Hi Flo sistema eskaini digutela ikusita, azken bi hauek EULENekoei eman zitzaizkien puntuazio berdina ematea proposatuko nuke.

Produktu ekologikoen erabilerari dagokionez, esan hobe delako uste dudala ahal bada produktu ekologikoak erabiltzea eta beraz zuzena deritzot egiten duten erreklamazioa, VILLARrekoen hori puntuatu zaiela diotenean eta beraiei ez, beraz biei puntuazio berdina ematea proposatuko nuke.

Puntuatu diren hobekuntzak, ala ez direnean:

Ingurugiroaren zainketarako VILLAR enpresako eskaintzaren 23. hobekuntzak zerbitzuari ezer berririk aportatuko ez diola diotenean uste dut zuzen daudela, hobekuntza bezala baloratzeko ez baita aski, ur zikinen hoditeriara isurketarik egingo ez dutela eta ingurugiroaren zainketa langilegoaren artean sustatuko dutela adieraztea. Ikusita gainera ingurugiroaren inguruan, produktu ekologikoen erabilera aurrez puntuatu zaiela, uste dut zuten puntuazio kendu beharko litzaiekeela.

36. hobekuntza delako eta, ikastoletako jolas lekuetan batez ere, kanpoan aurkitzen diren baina eraikinaren erabilerako gune hesituaren barruan dauden jolaslekuetako lurrian, edo inguruko manposteria hormetan eta abar, sortzen da landaredia eta tarteka izan ditugu zentroetako zuzendarien eta arduradunen kezak gai honen inguruan. Hobekuntzak eraikinaren ingurua hobeto egotea ekarriko badu, eta puntu bakarrekin puntuatu zela ikusita, uste dut puntuaketa mantentzea egokiago delako, kentzea baino, beharrezko ikustean lan hau egitea exijitu ahalko dugulako.

55. hobekuntza delako eta esan, sistema hau ohiko bi balde bidezko fregaketa sistemak baino hobe delako, batez ere bere diseinu ergonomikoagatik, badirudi neke gutxi eta lan kopurua pixka bat handitzen lagunduko lukeela sistemak. Ala ere ez dut uste diferentzia hain handia izango denik ohiko sistemekiko baina ikusita puntu bakarra eman zitzaizkion hobekuntzari, uste dut puntuazioa mantentzea egokia delako.

Hobekuntzen balorapena era diskriminatzailean:

Edukiontzien inguruan egin den eskaintzaren inguruan, esan Hernaniko Udalak Serconten enpresak ematen diola zerbitzu hori eta 56 edukiontzi digula gaur egun. Hau esanda 100 edukiontzi eskaintzean ez dut uste guztiak baloratu beharko genituzkeenik baizik eta beharrezkoak soilik. Ala ere ikusita Villarrekoen eskaintza, guk ditugunak ordeztera ez dela iristen eta CLECEkoena bai, hauen balorapena puntu erdi igotzea zuzentzat emango nuke, beraiek eskatzen duten bezala. Ala ere gehiago ez da beti hobeto, gehiegi ere ez baita ona.

VILLARrekoen 6. hobekutzari dagokionez, egia bada ere beraiek 20 ordutako zaintza lana eskaintzen dutela, eta ustez VILLARrekoek astean behinekoa, baina aldi berean 54. hobekuntzan, bisitak egunero egingo dituztela diote, instalazio guztietan ulertzen dudanez, eta beraz bi sistemek antzeko bermea eskainiko dituztela baloratuz, puntuaketak bere horretan uztea proposatuko nuke.

Bestalde, adierazi CLECEko 3. hobekuntzan berez 120 ordu erabilgarri izanda, ez dagozkiola 2 puntu balorapenean, 1,8 puntu baizik (EULEN enpresak 200 ordu eskaini baitzituen eta bera baita 2 puntuak dagozkiona)."

Ikusita Kontratazio eta Ondare teknikariak egin duen txostena eta aipatu helegiteak, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen, azaroaren 26ko, 30/1992 Legeak, 110 eta 116. artikuluetan eta hurrengoetan ezartzen dituen baldintzak betetzen dituela.

Ikusita Kontratazio Mahaiak 2011ko azaroaren 30ean emandako diktamena.

H1!eko bi zinegotzien abstentzioarekin hau erabaki da.

LEHENA.- Osoko Bilkurak 2011ko abuztuaren 17an hartutako esleipen akordioaren aurka, CLECE, SA-k jarritako berraztertze helegitea ez onartzea, eta, ondorioz, COMERCIAL DE LIMPIEZA VILLAR, SA-ren aldeko esleipen akordioa mantentzea aurrekarietan agertutako arrazoietan oinarrituz.

BIGARRENA.- Era berean, eta Zerbitzuetako Aparejadoreak egindako proposamenaren arabera, esleipendunen arteko hurrenkera mantentzea, baina CLECE, SA-ren azken puntuazioa aldatzea onartzea (95,31 puntu).

HIRUGARRENA.- CLECE, SA-k eskatutako esleipenaren etetea ez onartzea.

LAUGARRENA.- Ebazpen hau lizitatzailerak guztiei notifikatzea.

9.- PSE-EE ALDERDIAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, 2011KO FINANTZAKETARAKO FORU FUNTSAREN LIKIDAZIO NEGATIBOAREN AURREIKUSPENAREN ITZULKETARI BURUZKOA.- Morcillo andreak (Euskal Sozialistak) mozio hau irakurri du:

Udal Finantzaketarako Foru Funtsa da udalen diru sarrera garrantzitsuenetako bat. Gipuzkoako Foru Aldundiak egiten duen ekarpen honekin zerga itunduen bidez jasotakoan parte hartzen dute udalek. Baliabide arruntak dira eta udalek edozein motako gastu finantzatzeko erabil ditzakete, gastu arruntak nahiz kapitalekoak finantzatzeko.

Gaur egun egoera ekonomikoa dagoen moduan, Gipuzkoako udal askoren diru kutxek ezin diote Gipuzkoako Foru Aldundiari Udal Finantzaketarako Foru Funtsa itzuli. Ekonomia Itunak ezartzen duen partekatutako arriskuaren printzipioa onartuz ere, egia da udal aurrekontuak urtetik urtera estutuago datozela, diru sarreraren murrizketak dakarren egoerak bultzatuta eta, horren ondorioz, gastuak doitu beharra eta lehentasunak zorrozki finkatu beharra dago. Udal Finantzaketarako Foru Funtsetan itzulketak eta aurrekontuen doikuntzak, biak, finantza tentsio handiak sortzen ari dira udaletan, Foru Ogasunarekiko dituzten obligazio ekonomikoei aurre egin ezinik daudelako.

2011 urte hau ez da krisia izan dugun lehen urtea, ez eta Diputazioak diru sarrera handiagoren aurreikuspena egin eta gero benetan hala izan ez delako itzulketak egin behar izatea gertatu den lehenengo urtea ere. 2008az geroztik Gipuzkoako udalak milioika euro itzuli beharrean aurkitu dira 2008, 2009 eta 2010 urteetan, Udal Finantzaketarako Foru Funtsetan likidazio txikiagoa izan delako aurreikusita zegoena baino.

2009an, hain zuzen, bi milioi seiehun eta berrogeita hamar mila zazpiehun eta hirurogeita hiru euro izan ziren Hernaniko Udalak Diputazioari itzuli behar izan zizkionak.

Une hartan, erakundeek inolako aurreikuspenik egin ez zuten, eta Gipuzkoako udal guztientzako egoera zaila zela kontuan hartuta, Gipuzkoako Finantzen Kontseiluarekin akordio batera iritsi zen sozialistak bultzaturik, Foru Arau bidez proiektatuta zegoena, itzulketa hiru urtetan egin ahal izateko, lehenengo urtea gabealdikoa izanik. Negoziazio hori egokia izan zela uste dugu, gauzak erraztu egiten zituelako eta, gure ustez, gainera, jarraitzeko eredu ona da.

Finantzaketa-bide nahiko izatea erabakigarria da udalaren autonomia printzipioa bete dadin, ezinbestekoa baita finantza baliabideak izatea bere egitekoak baldintzarik gabe eta oso-osorik bete ahal izateko.

Udalak ari dira bereziki krisiaren eragina jasaten eta, horregatik, beharrezkoa da erakunde arteko elkartasun ariketa bat egitea. Horiek horrela, PSE-EE Udal Taldeak ondoko mozio hau aurkezten du:

MOZIOA

LEHENENGOA.- Hernaniko Udalak salatzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki duela Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren likidazio negatiboaren aurreikuspena itzultzeko erraztasunik ez ematea.

BIGARRENA.- Hernaniko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio jarrera hori berrazter dezala eta erabaki dezala 2009ko ekitaldiari zegokion kopurua itzultzeko sistema bera planteatzea, hau da, urtebeteko gabealdia eta zatikako ordainketa egite 2013, 2014 eta 2015 urteetan.

Miner jaunak (Bildu) hau esan du, besteak beste:

Mozioaren kontrako botoa emango dugu. Mozio horretan planteatzen dena errealitatetik kanpo dago. Gaur egungo egoera ekonomikoaren aurrean Foru Aldundiak bere gain hartzerik ez duen planteamendu bat egitea demagogia hutsa da gure ustez.

Lehen hartutako erabakiak hartzeko arrazoiak izan zitezkeen orduan pentsatzen zela egoera ekonomikoa lehenago aldatuko zela, krisia azkar bukatuko zela, baina Foru Aldundiari ezinezkoa egiten zaio eskatzen diren gerorapen horiek bere gain hartzea.

Ikusiko da urte bukaeran Foru Aldundiaren gerakina oso txikia izango dela eta likidatuko dela bilketa txikiagoari aurre egin beharko diolako.

Kontuan izan behar da 2009. urtean, erabakia hartu zenean, hain zuzen, Diputazioak 337.000.000,00 euroko gerakina zeukala, baina EAJ/PNV, PSOE eta H1!-en gestioari esker gerakin oso txiki edo negatiboarekin geratu dela.

Gerorapenera iritsi ahal izateko ezinbestekoa da gerakina edukitzea eta, kasu honetan, ez dago hori erabakitzeko aukerarik.

Talde sozialistakoek badakite joan den astean Batzar Nagusietan mozio bat onartu zutela, EAJ/PNV-ren botoekin, 2011koa itzultzeko gabealdiko urtebete eta hiru urte finkatzeko. Erabaki hori, alabaina, hartua egonda ere, ezin da gauzatu, Diputazioak ez daukalako gerakinik.

Zalantzarik handiena 2011ko likidazioarekin da, dena argitu gabe dagoelako eta badirelako hainbat puntu garrantzitsu Eusko Jaurlaritzaren mende daudenak, hala nola, kupoarekiko desadostasunak eta ROVERen ordainketen negoziazioa. Hori guztia argitzen ez den bitartean ezin jakin zer nolako eragina izango duen.

Estatua kupoaren kontuarekin jokatzeko ari den jokoaren aurrean, PSOE alderdia da, Eusko Jaurlaritzak bere eskutan duenez, autonomiaren defentsan lan egin behar duena, Diputazioan, udaletan eta, horrenbestez, Hernanin daukan eragina kontuan hartuta. Sozialistek eskatzen dizuegu Gasteizen PP-rekin argitu ez duzuen urtea bukatu aurretik argi dezazuela.

Foru Funtzaren behin betiko likidazioaren berri izaten dugunean Foru Aldundiari eskatuko diogu ez ditzala udalak kaltetu, eta malgutasunez joka dezala, itzulketarekin arazo gehiago izan ez ditzagun.

Amonarraiz jaunak (EAJ/PNV) hau esan du:

Harritura nago, Gipuzkoako diputatu nagusia entzuten ari nintzelakoan nengoen.

Hernaniko Udalak bere interesen alde egin behar du, eta ordainketa gerora dadila eskatu, hori bada udalarentzat onena. Txundituta geratzen naiz udal honetako zinegotzi bat Diputazioaren ezpata maneatzen ikusita, eta agian Diputazioari kalte egingo diogula-eta ezezkoa ematen ikusita.

Udal honentzako erosoena hiru zatitan ordaintzea bada, eskatu egin beharko litzateke, eta izan dadila Diputazioa ezetz esaten duena.

Miner jaunak esan du egoera zein den azaltzen saiatu dela eta legezkoagoa iruditzen zaiola benetan gauzatu ezin diren planteamendurik ez egitea.

Chica jaunak (Euskal Sozialistak) zoriondu egin du foru finantzen defentsa sutsu hori, baina esan du gauzatu ezin diren gauzak planteatzea, oraintxe zentral hidroelektrikoak hitz egiten ari ginelarik, batean kale bestean bale egitea dela.

900.000,00 euroz ari gara hizketan, urte betean ala hiru urtetan ordaintzeaz. Logikoena da, Hernaniko zinegotziak izanik, Hernaniren interesak defenda ditzagula.

Alkate jaunak (Bildu) hau esan du:

Diputazioarekin gai hau aztertzeko bilerak izan ditugu. Gaur egungo egoera ekonomikoak hitz egin dugu, udalen finantzaketaz, baina arazoa da gerakinik ez dagoela. Uste dugu benetako egoera zein den baldin badakizue ezin dela planteamendu hori egin. Eta garbi utzi nahi dut honek ez duela zer ikusirik zentral hidroelektrikoarekin.

Azkenik, alkate-lehendakariak mozioaren bozketa egin du. Hona hemen emaitza:

* Aldeko botoak: 6 (3 Euskal Sozialistak, 1 EAJ/PNV, 2 H1!)

* Kontrako botoak: 9 (Bildu).

* Abstentzioak: bat ere ez.

Beraz, emandako botoak ikusita, aurkeztutako mozioa EZ DA ONARTU.

10.- ESKAERAK ETA GALDERAK.- Ez dira egin.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 19:50 orduetan bilera bukatutzat eman da eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatu dut.